



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

MAHASTIZAINZA TXOSTENA: 2017KO ABUZTUAREN 10A.

Azken bi asteak oso onak izan dira, egunez tenperatura altuak eta gauez freskoak izan direlarik, eta horrek eragin du mahastia arin garatzea eta osasun egoera oso egokia izatea.

Mahastia, Arabako Errioxan, kolorea aldatzen dago, batez beste. Hala ere, lurzati batetik bestera, eta are mahatsondo batetik bestera ere, ezberdina da jokabidea, oro har. Iragan apirilaren 28ko izozteak suntsitu egin zuen landaretza, leku batzuetan gehiago bestetan baino, eta leku askotan ia erabat, eta, hala, bigarren ernetzeak izan ziren, lehen ernetzeak baino hiru aste beranduago hasiz zikloa. Hori dela eta, badira mahastiak 20 eguneko aldea dakartenak garapenean, gertu dauden beste mahasti batzuen ondoan. Izozteak aldeaz eragin dien mahatsondoetan ere, mahats mordo batzuk ageri dira kolorea guztiz hartuta, eta, beste batzuk, aldiz, mahats mordoa osaturik baino ez.

Ernamuin guztiak izotzarekin galdu zituzten mahatsondoetan, mahats mordoak ez baitziren ugariak, ohi bezala ari da gertatzen heldzea. Zur zahar eta berriko mahats mordoak dauzkatenetan, berriz, alde handiak ikusten dira, eta espero dugu berdintzen joatea mahatsa biltzeko unera arte.

Balantzea egitera, esan behar dugu honako kanpaina honen hasieran ernetzea oso goiz gertatu zela, eta ondoren izozteak erasandako lekuetan bortizki eten zuela zikloa, eta, harrezkero, uneka, euriek eta tenperatura epelek lagunduta, haztea arin gertatu dela, eta uneka, lehorreak edo tenperatura handiegiek eraginda, moteltzeak edo erabateko geldialdiak gertatu direla.

Arabako Errioxan, beraz, hemendik aurrera egoera nolakoa den ikusi behar, erabakitzeke mahatsa biltzeko une egokiena zein den. Lehorre handia izan dugu orain arte, eta urik izango den edo ez eta gaueko eta eguneko tenperaturaren gradientea nolakoa, halaxe iritsiko da lehenago edo beranduago mahatsa biltzeko unea: inoizka euria egiten duen edo ez eta gaueko eta eguneko tenperaturen arteko kontrastea nolakoa den, ohi baino goizago edo beranduago iritsiko da mahatsa biltzeko garaia.

Osasun egoeraz, bestalde, erne ibili beharko dugu botritisarekin, gaurtik eta heldzea iritsi arte. Euria eginez gero, beharrezkoa izango da prebentziozko tratamenduak

ematea, betiere segurtasun epeak gogoan. Tratatu beharra gertatuz gero, mahatsondoaren bi aldeak tratatu behar dira, saiatuz tratamendurako gaia mahats mordoraino ondo irits dadin. Fruituaren inguruan, komeni da orriak kentzea, tratamendua ondo sar dadin, orriak utziz eguzkiari gehien begiratzen dioten aldeetan (mendebaldea eta hegoaldea), erre ez dadin.

Behin kolorea aldatu, onddoak ez dio erasotzen mahats mordorari. Halaber, gorrinak ere euriarekin baizik ez du erasaten.

Euria eginez gero edo sailak ureztatuz gero azken tratamendu fitosanitarioa emateko, gomendagarria da kobrea erabiltzea bordeles salda emanaz. Ohiko produktu horrek, azken uneetan gorrinarentzako egoera aproposa izanez gero, infektatzen du, orria zaintzen eta aihena ihartzen lagunduz. Kaltzio-brontzezko sulfatoaren kaltzioak (bordeles salda) badu, gainera, botritisa gerarazteko ahalmena, eta mahats alearen azala gogortzen laguntzen du.

Aiarako haranari dagokionez, Arabako Txakolina dela eta, mahastiak ondo ari dira garatzen, gorrina gainturik. Mahastia, eskualde horretan, kolorea aldatzen ari da berriz (M1 egoera fenologikoa).

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua